



PROPOSAMEN AURKEZPENA 2017ko deialdia

1. AURKEZLEA

1.1. Aurkezlearen izena

Asier Barandiaran Amarika

2. HAUTAGAIA

2.1. Izen-Abizenak

Jon Kortazar Uriarte

3. PROPOSAMENTAREN ARRAZOIAK

3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak

Jon Kortazar Uriarte, filologian katedradun, ekintzaile, ikerlari eta euskal literaturaren aztertzaile apartaren hautagaitza ondorengo arrazoietan oinarritzen da.

Mundakan munduratu zen Jon Kortazar 1955ean eta Bizkaian hazi eta hezitako akademiko honek Filologia Erromanikoan lizentzia hartu eta Lauaxeta idazlearen lan poetikoa aztertuz burutu zuen bere doktorego tesia, eta 1985ean Deustuko Unibertsitatean defendatu egin zuen.

Euskal Herriko Unibertsitatean urte berean, 1985ean alegia, lortu zuen irakasle plaza eta 1992an katedradun bilakatu zen unibertsitate berean.

Baina ordurako bazituen argitaratuak hainbat ikerketa hainbat aldizkari eta komunikabideetan, ikerketa sakona dibulgazioarekin uztartuz. Ordurako zenbait sari irabaziak zituen ere. Goiztiarrenetako bat, Mikel Zarate saria izan zen, 1980an, entsegu mailan, hain zuzen ere Mikel Zarate idazle zenduaren prosa aztertuz. Gerora beste sari batzuk etorriko ziren; hala nola, Lauaxeta Saria (Bizkaiko Diputazioa, 2008) edo Rosalía de Castro (PEN CLUBE Galiziakoa, 2008). 1982an bere aurreneko fikziozko lana kaleratu zuen: *Bidean izan zen*, *Rosapen*, Hordago argitaletxean argitaratua. Hurrengo urtean Euskaltzaindiako kide izendatu zuten.

Jon Kortazar Uriarte aitzindaria izan da bere ibilbidean hainbat arlotan. Lehenengo eta behin, berritzaile izan da kritika literarioaren metodologian. Euskal literaturak behar zuen kritika literario bat Mendebaldeko kultura modernoaren parametroekin bat etorriko litzatekeena. Hori, nire uste apalean, Jon Kortazarren ekarpenari esker izan da zalantzarik gabe. Egia da euskal literaturak eta bereziki euskaraz egiten den literaturak aurrerapen itzelak egin dituela azkeneko hamarkadetan eta hori euskal idazleei esker izan dela. Baina egia da baita ere euskal literatura horrek baloratua, balioetsia eta aztertua behar zuela izan, nazioarteko iritzi kritikoak eta iritzi publikoak kontuan har dezaten. Hori ere Jon Kortazarri esker izan da. Jon Kortazarren lanak eta ekarpenak 10 hizkuntzetara itzuliak izan dira (alemana, ingelesa, frantsesera, errusiera, gaztelania, portugesa, katalanera, galegoa, georgiera eta errumaniera), ez bakarrik euskal literaturaren berri lau haizeetara hedatuz, baita euskal hizkuntza eta kulturaren berri emanez ere.

Ikerketa humanistikoetan aitzindaria izan da, kritika literarioaren barruan, semiologian, kritika soziologikoan eta literaturaren historian jorratutako metodologiak eta ikuspuntuak punta puntakoak



EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

dira eta, arestian esan bezala, gaur egungo kritika literarioarekin guztiz homologagarriak. Literatura konparatuan ere gure euskal kulturaren sekula jadetsi gabeko lorpenak izan ditu euskal literatura Europako hainbat literatura joerekin erkatuz. Hori guztia dibulgazio lan nekazinarekin uztartzen jakin du, hainbat kultura- eta literatura-ekimenetan parte hartuz, hainbat komunikabide ospetsutan kolaboratuz eta beraietan kritika-bide berriak jorratuz.

Akademiko honen emankortasuna ez da horretan geratzen. Bere pentsaera irekiak Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko eta munduko hainbat unibertsitateekin harremanak eta proiektuak aurrera eramatera eraman du. Gutxi batzuk aipatzearen, Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Tel Aviv-eko Unibertsitatea, Santiagoko Unibertsitatea, Ameriketako Estatu Batuetako Nevadako Unibertsitatea eta beste unibertsitate batzuk izan dira nola edo hala kolaboratzaileak Jon Kortazarrek bultzatutako ikerketa proiektuetan.

Zeren eta ikerketa proiektu arrakastatsu eta esanguratsuak gidatu ditu aurkezten dugun hautagaiak, ikerlari nagusiaren izendapenarekin (eta izanarekin) aurrera atera direnak, nazioarteko argitalpenak sustatuz eta hainbat ikerlari gazte promozionatuz. Euskal literaturaren hiztegia dugu horietako bat, egile eta obra garrantzitsu nagusien azterketa eta analisisekin. Euskal literaturaren historia delako proiektuan, adibidez, zenbait erakunderen laguntza bilatu eta aurkitu ostean, Jon Kortazarrek lan-talde askotariko bat lortu du eta dagoeneko 15 ale edo liburuki dituen literatura euskarazko sail bat kudeatu egin du. Hori, berriz, ez da oztopoa izan beste hizkuntzetan ere beste monografiko batzuk ateratzeko mundu mailako argitaletxe prestigiotsuetan. Langintza horretan zenbait ikerlari gazte zaildu eta aberastu egin dira curriculum eta ibilbide akademikoari dagokionez. Ikerketa horien emaitzek nazioarteko kongresu askotan izan dute euren oihartzuna.

Euskal literaturan itsasargi ezinbestekoa dela frogatzen dute hainbat urtetan literatura sarien epai-mahaietan izandako parte hartzeak: Euskadi Saria, Espainiako Sari nazionala, Irun Hiria Saria, Lauaxeta Saria, Blas de Otero Saria, Donostia Saria... gutxi batzuk aipatzearen. Izan ere, gurean ekoizten den berbaldi literarioa baloratzen, kimu berriak zaintzen eta promozionatzen berebiziko lana egin izan du Jon Kortazarrek, hitzez eta egitez; alegia, harreman pertsonal bero eta hurbilaren bitartez eta oihartzun handiko ekoizpen akademikoren bitartez.

Hautagai hau sarituz gero, euskal literaturan, euskal ikasketetan eta euskal kulturaren aztarna sakona eta zabala utzi duen pertsona baten lana sarituko duzue eta horrekin batera berarekin lan egin eta lan egiten ari diren hainbat ikerlari eta sortzaileri aupada eta bultzada emanen diezue, kultura eta giza zientzien bideetan jarraitu eta lau haizeetara hedatzeko.



EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

ERANSKINAK:

- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Curriculum Vitae laburtuta
- ✓ Hautagaiaren Argazkia
- ✓ Beste:

Tokia, data eta sinadura: Vitoria-Gasteizen, 2017-06-23

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela lanaren ordainketa gestionatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dio sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: El/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.



PREMIO MANUEL LEKUONA SARIA

HAUTAGAIAREN CURRICULUM VITAE LABURPENA

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela lanaren ordainketa gestionatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dio sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.org, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: El/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.



PREMIO MANUEL LEKUONA SARIA

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA (Garrantzi handieneko titulazioa)

LIZENTZIATURA

ZENTRUA

DATA

FILOLOGIA
ERROMANIKOA

DEUSTUKO unibertsitatea 1977

EUSKAL LITERATURA Deustuko unibertsitatea 1985

TESI ZUZENDARIA(K): KOLDO MITXELENA

EGUNGO LANBIDE EGOERA

ERAKUNDEA: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

BILBOKO IRAKASLEEN U. ESKOLA

DEPT./SAILA: HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA



PREMIO MANUEL LEKUONA SARIA

PARTAIDETZA IKERKETA PROIEKTUETAN (gehienez 2)

LAIDA. EUSKAL LITERATURA ETA IDENTITATEA... IT 851/13

ERAKUNDE FINANTZAILEA: EUSKO JAURLARITZA IRAUPENA NOIZTIK: 2013. NOIZ ARTE: 2015

IKERTZAILE NAGUSIA

LAIDA. EUSKA LITERATURA ETA IDENTITATEA. Jarraipena. IT 1012/16

ERAKUNDE FINANTZAILEA: Eusko Jaurlaritza /UPV-EHU

IRAUPENA NOIZTIK: 2016 IKERTZAILE NAGUSIA

NOIZ ARTE: 2018

ARGITALPENAK (gehienez hiru)

Luma eta Lurra. Euskal poesía 80ko hamarkadan. BBK Fundazioa. Bilbo 605 or. (1997)

Contemporary Basque Literature: Kirmen Uribe's Proposal Iberoamericana-Verveurt. Madrid-Frankfurt-New York. 200 p. (2013.).

Kortazar, Jon eta zenbait egile

Egungo euskal literaturaren Historia. 8 tomo. EHU Argitalpen Zerbitzua. UPV-EHU. Bilbo. (2004-2017).

KONGRESU ETA HITZALDIAK (gehienez lau guztira)

- "Urbis Europae". Programa Intensivo financiado por la Comunidad Europea. Universidad de Kiel. 2006

- I Congreso Internacional de Literatura y Cultura españolas contemporáneas. Universidad Nacional de La Plata. 2008

- Looking at Iberia. A Comparative European Perspective. Lisboako Unibertsitatea. 2010

- Barcelona, 1938. capital de Tres Governos. Fundació Pí i Sunyer. Barcelona. 2008



PREMIO MANUEL LEKUONA SARIA

BESTELAKO MEREZIMENDUAK EDO AZALPENAK (gehienez bost)

- MIKEL ZARATE SARIA, Euskaltzaindia. Saiakera Saria. 1980
- LAUAXETA SARIA. LAN OSOARI. BIZKAIKO ALDUNDIA. 2009
- ROSALÍA DE CASTRO SARIA. PEN CLUBE de Galicia. 2008
- EUSKO IKASKUNTZAKO BIZKAIKO LEHENDAKARI ORDEA
- EUSKALTZAINDIKO PARTAIDEA. 1983-2017...
- EL CORREOKO KAZETARITZA SARIA. 2000